

## GOUACHE, AKUARELA ETA AKRILIKOA

### Jarduera

Hiru teknika hauek elkarrekin konbinatu daitezke, baina, aldi berean, desberdinak dira.

### Deskribapena

Gouache, akuarela eta akrilikoa uretara disolba daitezkeen pinturak dira, baina bakoitzak bere ezaugarri bereziak ditu. Akuarela eta gouachea iraunkorrek ez diren bitartean, akrilikoa, lehortu ondoren, urarekiko erresistentea da. Desberdintasun hori eta beste batzuk dira ikasturte honetan ikasiko direnak, hiru teknikak behar bezala konbinatu ahal izateko eta teknika mistoko lan interesgarriak egin ahal izateko. Gainera, hainbat aukera tekniko ikasiko dira: hezea hezearen gainean, kolore opako eta gardenak, pintura erauztea, beladurak, degrada-bi, erreserbak...

### Helburuak

- Hiru pintura motak eta horien desberdintasunak sakon ezagutzea.
- Teknika horien konbinazioa are gehiago aberasteko hainbat baliabide ikastea.
- Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea.

### Programa

#### 1. Hiruhilekoa

##### Akuarela

- Oinarri teknikoak.
- Kolorearen teoria sarrera.
- Objektuak eta natura: koloreak, itzalak, bolumena...
- Lan librea gidaritzapean

#### 2. Hiruhilekoa

##### Gouache

- Oinarri teknikoak.
- Esperimentazio teknikak.
- irudi planoak eta degradatuak.
- Lan librea gidaritzapean

#### 3. Hiruhilekoa

##### Akrilikoa

- Oinarri teknikoak.
- Teknika ezberdinak.

- Erretratuak.
- Lan librea gidaritzapean.
- proiektu pertsonala.

## Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea

## Nori zuzendua

Helduak

## Ikasleak eraman beharreko materiala

Gouache (magenta, zian, horia, txuria eta beltza), akuarela kaxa txikia, akrilikoak (magenta, zian, horia, txuria eta beltza). Pintzel egokiak gutxienez hiru tamainakoak teknika bakoitzerako (orientagarria: 3, 6 eta 12 biribilak). Teknika bakoitzerako euskarria, batez ere kontuan hartzekoa akuarelarako papera. Kristalezko potoa eta paleta.